

BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA

BILBO-BASURTU ESiko zuzendari gerentearen irailaren 25eko 1745/2014 EBAZPENA, Yolanda Calleja Pérez andrea izendapen askez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBO-BASURTU ESiko gainbegirale izendatzeko.

Apirilaren 14ko 334/2014 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBO-BASURTU ESlan gainbegirale lanpostu bat (Iturrizar 3) izendapen askez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Yolanda Calleja Pérez andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBO-BASURTU ESiko gainbegirale.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko Hirugarren Arau Komuneko 28. artikuluan, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Yolanda Calleja Pérez andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBO-BASURTU ESiko gainbegirale izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek 2014ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.-Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokienez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta BILBO-BASURTU ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honen iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2014ko irailaren hogeita bostean.

BILBO-BASURTU ESIKO ZUZENDARI GERENTEA /
LA DIRECTORA GERENTE DE LA OSI BILBAO-BASURT

Iz./Fdo.: MICHOL GONZALEZ TORRES

 **Osakidetza**
GERENTZIA
GERENCIA

BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

RESOLUCIÓN 1745/2014, de 25 de septiembre, de la Directora Gerente de la OSI BILBAO-BASURTO, por la que se nombra, mediante libre designación, a D^a. Yolanda Calleja Pérez, Supervisora en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 334/2014, de 14 de abril, se convocó la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Supervisora (Iturrizar 3) en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Efectuada por la Comisión la valoración de las solicitudes presentadas así como la correspondiente propuesta de nombramiento, y a la vista de los conocimientos académicos y profesionales que concurren en D^a. Yolanda Calleja Pérez procede efectuar su nombramiento, mediante libre designación, como Supervisora en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre,

RESUELVO

Primero.- Nombrar a D^a. Yolanda Calleja Pérez Supervisora en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Segundo.- El presente nombramiento surtirá efectos el 1 de octubre de 2014.

Tercero.- El personal nombrado para puestos de trabajo por el procedimiento de libre designación podrá ser cesado con carácter discrecional por el órgano que efectuó el nombramiento. El cese o la remoción supondrá el traslado a otro puesto funcional, manteniéndose en todo caso las condiciones propias de la categoría que ostente el interesado, efectuándose la adscripción a puesto de las mismas características y preferentemente en el mismo ámbito organizacional y territorial que venía ocupando con anterioridad a su nombramiento. La adscripción tendrá efectos del día siguiente al de la fecha de cese y se efectuará conforme al procedimiento que se fije en Osakidetza. Deberá reunir todos los requisitos y condiciones exigidos para la provisión del puesto.

Cuarto.- Notifíquese la presente resolución al/la interesado/a y a la Dirección de Personal de la OSI BILBAO-BASURTO.

Quinto.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

En Bilbao, a Veinticinco de septiembre de 2014.

BILBO-BASURTU ESIKO ZUZENDARI GERENTEA /
LA DIRECTORA GERENTE DE LA OSI BILBAO-BASURTO

Iz./Fdo.: MICHOLO GONZALEZ TORRES

 **Osakidetza**
BILBO-BASURTU ESIKO ZUZENDARI GERENTEA /
LA DIRECTORA GERENTE DE LA OSI BILBAO-BASURTO

